

Abizenak, aukeran

Hemendik aurrera askatasun osoa izango dute gurasoek seme-alabei nahi duten ordenan jartzeko abizenak. Irratsaio batetik abiatuta, gai horretaz arituko gara jarduera honetan.



Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Orain arteko egoera legalari buruzko ustea adierazi.
- Irratsaioa entzun eta galderei erantzun, ondo ulertu duzun jakiteko.
- Identifikatu irratsaioan hitz edo espresio batzuen baliokideak.
- Gai horren inguruan hitz egin, iritziak, esperientziak eta hipotesiak eginez.



Ba al dakizu?

Ea informatuta zauden gai honen inguruan. Espainiar estatuan Erregistro Zibilaren Lege berria indarrean jarri aurretik (2017ko uztailaren 1ean), nola jartzen zen seme-alaben abizenen ordena? Galderari erantzun ondoren, entzun irratsaioaren sarrera erantzuna jakiteko.

<https://labur.eus/zhdpo>



Aukeratu erantzun zuzena.

- Araua ez zegoen garbi eta, ondorioz, denetik gertatzen zen.
- Lehendabiziko abizena beti aitarenak izan behar zuen.
- Aitarenak zeukan lehentasuna, baina jarri zitekeen amarena ere lehendabizi.

Egia ala gezurra

Jarraituko dugu irratsaioa entzuten. Esan ondorengo esaldiak bat datozen ala ez entzun duzunarekin.

	Egia	Gezurra
1) Berritasun asko dakartza Erregistro Zibilaren lege berriak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2) Hemendik aurrera aitaren abizenak ez dauka lehentasunik; ados jarri behar dute gurasoek abizenak zer ordenatan jarri.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3) Denbora bat pasatuta gurasoak ados jartzen ez badira, Erregistroko arduradun batek erabakiko du zer ordenatan jarri.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4) Inma abokatuak dionez, bikote bat dibortziatu egin zen umea jaiotakoan abizenen ordenarekin ados jarri ez zirelako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5) Lege berriak askatasuna ematen die gurasoei seme-alaba bakoitzari nahi duten ordenan jartzeko abizenak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6) Hemendik aurrera ez da Familia-libururik emango.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7) Haurren aitona-amonek ere egiten dute nolabaiteko presioa gurasoengan, beren abizena gal ez dadin.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

<https://labur.eus/ld2vN>



Lexikoa



Orain lexikoari erreparatuko diogu. Hemen idatzita dituzun antzeko espresio eta hitzak esaten dituzte irratsaioan. Entzun eta idatziko al dituzu hutsuneetan?

<https://labur.eus/yJfRm>



1. **Abizen** hitzaren sinonimo bat askotan erabiltzen dute irratsaioan. Zein? _____
2. Gerta litezke bikotearen barruan istiluak. **Auskalo!** _____
3. Inork ez du nahi **besteei arrazoa ematea**. Inork ez du nahi. _____
4. Askotan **bitza konplikatu** egiten dugu. Askotan _____


Zuk nola jokatu zenuke?

Talde txikitara jarri eta gai honen inguruan jardungo dugu. Horretarako: iritziak emango ditugu, suposizioak egin, esperientziak kontatu eta egoera hipotetikoak irudikatu. Erantzun ondorengo puntu hauei:

1. Abizenak gurasoek nahi duten ordenatan jartzeak, arazorik ekar lezake? Zer arazo aurreikusten dituzu?
2. Nola irudikatzen duzu jokatu duela jendeak?
3. Gurasoa bazara, nola egin zenuten? Eta orain nola jokatu zenuke?

Erabili ditzakezun esaldiak:

- Niri iruditzen zait lege berri honek istilu dezente ekarriko dituela.
 - A bai! Nolako arazoak, ba?
- Ba arrazoi bat gehiago elkarrekin haserretzeko.
 - Nik orain erabaki beharko banu, lehendabizi emaztearena jarriko nioke.
 - Zergatik?
- Ba, besteak beste, nirea itsusiagoa delako.



Erantzunak eta ereduak

Ba al dakizu?

Aitarenak zeukan lehentasuna, baina jarri zitekeen amarena ere lehendabizi.

Egia ala gezurra

- 1) Berritasun asko dakartza Erregistro Zibilaren lege berriak.
- 2) Hemendik aurrera aitaren abizenak ez dauka lehentasunik; ados jarri behar dute gurasoek abizenak zer ordenatan jarri.
- 3) Denbora bat pasatuta gurasoak ados jartzen ez badira, Erregistroko arduradun batek erabakiko du zer ordenatan jarri.
- 4) Inma abokatuak dionez, bikote bat dibortziatu egin zen umea jaiotakoan abizenen ordenarekin ados jarri ez zirelako.
- 5) Lege berriak askatasuna ematen die gurasoei seme-alaba bakoitzari nahi duten ordenan jartzeko abizenak.
- 6) Hemendik aurrera ez da Familia-libururik emango.
- 7) Haurren aitona-amonek ere egiten dute nolabaiteko presioa gurasoengan, beren abizena gal ez dadin.

Egia Gezurra



Lexikoa

1. Abizen hitzaren sinonimo bat askotan erabiltzen dute irratsaioan. Zein? (Deitura)
2. Gerta litezke bikotearen barruan istiluak. Auskalo! (Batek daki!)
3. Inork ez du nahi besteei arrazoia ematea. Inork ez du (amore eman) nahi.
4. Askotan bizitza konplikatu egiten dugu. Askotan (ur handitan sartzen gara/sartzen da jendea)

Transkripzioa

ESATARIA. Hitz egin dezagun deitura edo apeliduei buruz. Bihartik [2017-07-01] aurrera aitaren abizenak ez du lehentasunik izango ume jaio berriak izendatzerako orduan. Ostiralean indarrean jarriko den Erregistro Zibilaren lege berriak amaren abizena aitaren abizenaren maila berean jarriko du, eta gurasoak ados jarri beharko dira seme-alaben lehen abizena, lehen deitura, aukeratzeko orduan.

ESATARIA. Inma Ansotegi familia-abokatua da. Inma, egun on.

INMA ANSOTEGI. Egun on.

ESATARIA. Beraz, bihartik aurrera, Inma, Erregistro Zibileko aldeketa honekin, lege berriarekin, aitaren abizenak ez du lehentasunik, prefentziarik, izango, ezta?

INMA ANSOTEGI. Bai. Lehentasuna galdu egiten du, baina, bueno, orain arte ere posible izan da amarena lehenengo jartzea, eurek ados egonda. Lege honek ez dakar horrenbesteko nobedaderik.

ESATARIA. Beraz, orain arteko urte hauetan ja posible zen amaren deitura jartzea lehendabiziko deitura gisa.

INMA ANSOTEGI. Hori da.

ESATARIA. Baina orain ja, zera, ez dago inolako eragozpenik, ezta? Eragozpen juridiko guztiak kendu ditugu.

INMA ANSOTEGI. Kendu ditugu, hori da.

ESATARIA. Esan dugu gurasoak ados jarri beharko direla abizena aukeratzeko orduan, ze, bueno, bai batarena edo bestearena jar genezake. Ados jartzen ez badira aita eta ama, erabakitzerakoan lehenengo deitura zein izango den, zer esaten du legeak egoera horri buruz? Ez badago adostasunik.

INMA ANSOTEGI. Legeak esaten du Erregistroaren arduradunak 3 eguneko epe bat emango diela euren artean, ba, argitzeko puntu hori, ez? Eta ez badira gai argitzeko edo erabakitzeke zein izango den 1. abizena, ba arduradun horrek berak erabakiko du zein izango den abizen hori.

ESATARIA. Imajinatzen dugu gutxitan gertatuko dela hau, ja, zera, umea jaio aurretik erabakita izango dutela gurasoek zer deitura jarri, baina, bueno, batek daki ezta? Eman litezke horrelako gatazkak edo konfliktuak.

INMA ANSOTEGI. Bai, bai, eta ematen dira, guk ikusten ditugu.

ESATARIA. Ez esan! Gertatzen dira praktikan?

INMA ANSOTEGI. Bai. Nik abokatu moduan ikusi dut eztabaida hori umea jaio aurretik, eta kasuren batetan azkenean bikotea apurtu egin dela, hori dela-eta.

ESATARIA. A bai!? Dibortziatzeko eta banantzeko arrazoia izan da hori?, ez jartzea ados deiturarekin?

INMA ANSOTEGI. Bai, bai.

ESATARIA. Jontxo. Beraz, ordena errespetatu behar da: lehendabiziko umeari jartzen badiogu amaren abizena lehendabizi eta bigarrena aitarena, ba gero seme-alaba berriei ordena bera jarriko diegu.

INMA ANSOTEGI. Bai.

ESATARIA. Bueno, beste aldeketa bat badakar Erregistro Zibilaren lege berri honek, Inma?

INMA ANSOTEGI. Familia-liburua desagertu egingo dela. Erregistro honetan gure jaiotze-dataren inskribapena egiten dugunean, ba hor eduko doguz [ditugu] gure bizitzako datu guztiak, erregistroa sartuko diren datu guztiak, eta horrek egingo du ordezkatu familia-liburu hori; ez da beharrezkoa izango oraindik aurrera familia-liburu horren erabilera. Eta, beraz, legearen arabera, ez da emango, uztailearen 1etik aurrera, familia-libururik.

ESATARIA. Begira, betirako desagertuko zaigu, beraz, familia-liburua.

INMA ANSOTEGI. Bai.

ESATARIA. Terreno konplikatu da, e? Askotan jendea ur handitan sartzen da eta ez dira ados jartzen. Eta inork ez du amore eman nahi deituren kontu honekin, e?

INMA ANSOTEGI. Bai, horrela izaten da; eta, gainera, ba bueno, gehienetan 1. umea denean, denak poztasun hori eta ... Hori izaten da, ez?: zer izen ipiniko diogu eta, klaro, izen honekin zein abizen dator hobeto, ez?

ESATARIA. Ja, klaro!

INMA ANSOTEGI. Orduan, hor hasten dira eztabaidak askotan. Edo gero familiaren eragina ere bai, ez? "Jo, ba, nire aitari ilusioa egiten dio, ze..."

ESATARIA. Bai, ilusio-kontuak, ez?

INMA ANSOTEGI. Bere abizena bestela galdu egingo da.

INMA ANSOTEGI. Galdu egingo da eta ja, ja

INMA ANSOTEGI. Bai,